

## EUSKO LEGEBILTZARREKO LEHENDAKARIAREN AGURRA



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO

## LEGEBILTZARREN ZERBITZURA

Bakartxo Tejeria Otermin

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria

*Legebiltzarreko Aldizkaria, LEGAL* berriketari digitala Eusko Legebiltzarrak zuzenbide arloen hausnarketara zuzendutako egitasmoa da. Begi bistan duzu lehen alea. Eusko Legebiltzarreko Azterlanen Zuzendaritzak bul-tzatutako *LEGAL* aldizkaria, Eusko Legebiltzarrak bere 40. urteurrena betetzen duen urtean sortu da, 2020an, eta argia ikusi du COVID pandemiak Euskal Herria eta mundu osoa kolpatu duen une eta garaian.

Ez da kasualitatea izan Legebiltzarraren 40. urteurrenaren inguruan sustatzea jarduera parlamentarioarekin lotura duten arlo juridikoetan hausnarketa eta ikerketa eragitea helburu duen aldizkari berri hau, bat baitator egindako ibilbidearekin eta horren emaitza baita. Era berean ez da kasualitatez gertatu formatu elektronikoa soilik sortzea agerkari berria, hori baita aldizkari hauen oraina eta, bereziki, geroa.

Zuzenbide parlamentarioa eta bizitza parlamentarioan eragina duten gaiak izango dira aldizkari honen bizkar-hezurra eta enbor nagusia; horregatik, eta ezta-

baida parlamentarioan duten eragina kontuan izanda, Zuzenbide konstituzionala, administratiboa eta oro har Zuzenbide publikoaren arloko gaiak tokia izango dute agerkari honetan.

Azterlanak, legeriari eta jurisprudentiari buruzko iruzkinak eta gogoetak, Eusko Legebiltzarrak eta bes-telako ganbara legegileek egindako txosten juridikoak, Legebiltzarrean izandako agerraldietan egindako ekar-penak eta azken hilabeteetan argitaratutako bibliogra-fiari buruzko aipamenak izango dira *Legal* aldizkariaren osagaiak.

Hemen duzuen aldizkariaren lehen alea, bere edu-kiek, azaltzen dute ezer baino hobe agerkari hau dena eta izan nahi duena: Eusko Legebiltzarraren eta parla-mentuen zerbitzura jarritako gogoetarako eta zabalpe-nerako tresna berri bat.♦